

# Aurtxoan Kristau Ikastia

GAZTEIZ ELIZ-BARUTIKO KRISTAU-IKASBIDEA'REN  
LENENGO MAĻA IDANTZEKIZ APAINDU  
TA AZALPENEZ ERATUA.

GOTZAI JAUNAK IZENDATUTAKO BATZORDEAK,

"LENENGO MAĻA"KO GALDERANTZUNAK  
IZKI AUNDIKOAK DIRA



EUZKO ARGITALDARIA  
Zelala eta Lagunak  
ZARAUTZ  
1932

ATV  
18299



M-8552

R-36227

ATV  
18299

# Aurtxoan Kristau Ikastia

GAZTEIZ ELIZ-BARUTIKO KRISTAU-IKASBIDEA'REN  
LENENGO MAĻA IDANTZEZKIZ APAINDU  
TA AZALPENEZ ERATUA.  
GOTZAI JAUNAK IZENDATUTAKO BATZORDEAK.

"LENENGO MAĻA"KO GALDERANTZUNAK  
IZKI AUNDIKOAK DIRA



EUZKO ARGITALDARIA  
Zelaia eta Lagunak  
ZARAUTZ  
1932

JABEDUNA DA

*OARA.—Kristau-ikasti onen azalpena Irakaslarientzat, laister argitaratuko da.*



## Kristau-ikastiaren zatirik garaienak

---

Kristauak ezagueran sartzean lau gauza jakin eta aditu bear ditu:

Kredoa, Otoitzak, Aginduak eta Sakramentuak.

### 1. KREDOA

Sinisten det Jaungoikoa, Aita alguztidun, zeru luñen egilea; baita bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna ere; Espiritu Santuaren bidez softu ta Maria Birjiñagandik jaio zana; Pontzio Pilato'ren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, ila ta obiratua izan zana; inpernuetara jetxi, ta irugafen egunean ilen artetik piztu zana; zeruetara igo, ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldean eseririk dagona; ta andik biziak eta ilak epaitzera etoñiko dana. Sinisten det, ere, Espiritu Santua; Eliza Santu Katolikua, Santuen alkartasuna; pekatuen barkamena; aragiaren piztuera; betiko bizitza. Alaxe.

## 2. O T O I T Z A K

### Aita gurea

Aita gurea, zeruetan zaudena, santifikatua izan bedi zure izena; betof gugana zure efeinua; egin bedi zure borondatea zeruan bezela lufean ere.

Emaiguzu gauf gure eguneroko ogia; barka zazkiguzu gure zofak, guk geren zofdunai barkatzen diegun bezela; ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen; baizikan gorde gaitzazu gaitzetik. Alaxe.

### Agur' Maria

Aguf, Maria, graziaz betea, Jauna da zurekin; bedeinkatua zera zu andre guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua, Jesus.

Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, egegutu ezazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzeko orduan. Alaxe.

### Gloria

Aintza Aitari, ta Semeari eta Espiritu Santuari. Asieran bezelaxe orain ta beti, eta betiraunde guztian. Alaxe.

*Lateraz:* Gloria Patri, et Filio et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio, et nunc, et semper et in saecula saeculorum. Amen.

## Salbea

Aguí, Efégiña, Ama Efékioía; gure bizia, gozotasun ta itxaropena, aguí! Zure deiez gaude Eba'ren ume efbestetuok; zuri aiezka, antsiz ta negafez negaf-efi onetan. Ea, bada, itzuli itzatzu gure bitarteko on ofek, itzuli gugana zure begi efukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu ori. O biozpera! O efukioí! O Maria Birjin gozoa! Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Done ofek, Jesukristo gure Jaunaren abinduak iritxi ditzagun. Alaxe.

### 3. A G I N D U A K

#### **Jaungoikoaren Legeko aginduak**

Amar oek dira:

Lenengoa, Jaungoikoa maiteen izatea.

Bigafena, Jaungoikoaren izena alpefik ez aotañ aftzea.

Irugafena, jai-egunak jai egitea.

Laugafena, gurasoak aintzat eukitzea.

Bosgafena, iñor ez iltzea.

Seigafena, aragikeririk ez egitea.

Zaspigafena, ez ostutzea.

Zortzigafena, bear ez dan gauzarik iñori ez ezartzea ta gezuñik ere ez esatea.

Bederatzigafena, besteren sena edo emazterik ez  
nai izatea.

Amargafena, oker-bidez besteren ondasunik ez  
nai izatea.

## **Ama Eliza Donearen aginduak**

Bost dira:

Lenengoa, igande ta jai-egunetan Meza osoa en-  
tzutea.

Bigafena, urtean bein gutxienez aitortzea, ta ofe-  
zaz gañera eriotzaldian, eta jaunartu baño len,  
baldin ogen astunean bagaude.

Irugafena, Pazko-aldian gutxienez jaunartzea.

Laugafena. Ama Eliza Doneak agintzen duanetan  
aragi-uzte ta barau egitea.

Bosgafena, oi dan eraz, amañenak eta asikiñak  
Elizari ematea.

## **4. SAKRAMENTUAK**

### **Ama Eliza Donearen Sakramentuak**

Zazpi dira:

Lenengoa, Bataioa.

Bigafena, Sendotza.

Irugafena, Eukaristia.

Laugafena, Aitortza.

Bosgafena, Azken-igurtza.

Seigafena, Apaizgintza.

Zazpigafena, Ezkontza.





*Bataio Donea*

## S A Ñ E R A

### 1'º IKASGAIA

#### **Kristauaren izena**

1. *Kristaua al zera?*

Bai; <sup>(1)</sup> kristaua naiz, Jaungoikoari eskerak.

2. *Nola egin gera Kristau?*

Kristau egin gera, Bataio Donearen bitartez.

3. *Kristau izatea zer da?*

Kristau izatea, Jesu-Kristo'ren erakutsiak sinistu ta bere mirabetzarako bearturik egotea da.

---

(<sup>1</sup>) Esan: Bai Jauna; edo bai Andrea.



*Erospena*

## 2<sup>o</sup> IKASGAIA

### **Kristauaren ezaugaria**

1. *Zein da kristauaren ezaugaria?*

Kristauaren ezaugaria, Gurutze Donea da.

2. *Zenbat eratan egiten du Kristauak gurutzea deritzan ezaugaria?*

Bi eratan egiten du Kristauak gurutzea deritzan ezaugaria: «Gurutze santuaren,» eta «Aitaren» egiñaz.

3. *Ea egizu «Gurutze santuaren.»*

Gurutze santuaren † señaileagatik, gure † etsaiengandik zaitu gaitzazu † gure Jaun eta Jaungoikoa. Amen.

4. *Ea egizu «Aitaren.»*

Aitaren, ta Semearen † eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.



*Agustin Deuna ta Aurtxo*

## 1. K R E D O A

### 3<sup>n</sup> I K A S G A I A

#### **Siniskitz edo Kredo**a guztira

1. *Ea esazu «Credo»a.*

Sinisten det Jaungoikoa...

2. *Zertako esaten dezu «Credo»a?*

«Credo»a esaten det, kristauok degun sinismena aitortzeko.

3. *Sinismena zer da?*

Sinismena, ikusi ez degu, Jaungoikoak agertu digulako, egitzat eukitzea da.

4. *Zer da zuk, kristau zerauz, sinisten dezuna?*

Nik, kristau naizenez, Sinismeneko egi guztiak sinisten ditut, «Credo»aren Siniskaiak, batez ere.



*Jaungoikoa agertzen zaio Moises'i sua zerion sasia*

«Credo»aren lenengo Siniskaia: *Sinisten det Jaungoikoa, Aita alguztidun, zeru-luñen Egilea.*

#### 4<sup>n</sup> IKASGAIA

### Jaungoikoa ta bere Bikaintasunak

1. *Nor da Jaungoikoa?*

Jaungoikoa, zeru-luñen Egile ta Jabea da.

2. *Nun dago Jaungoikoa?*

Jaungoikoa, toki guztietan dago.

3. *Jaungoikoak dan guztia ikusten al du?*

Bai; Jaungoikoak dan guztia ikusten du, baita gure gogorapenak ere.

4. *Zenbat Jaungoiko dira?*

Ez da Jaungoiko bat besterik.



*Irutasun guztiz Doneu*

## 5' <sup>n</sup> IKASGAIA

### **Irutasun guztiz Donea**

1. *Zenbat notin edo lagun dira Jaungoikoagan?*

Jaungoikoagan, iru notin edo lagun banak dira.

2. *Nola dute izena iru notin edo lagun jaungoikozko oiek?*

Iru notin edo lagun jaungoikozko oiek, **Aita**, ta **Semea** eta **Espiritu Santua** dute izena.

3. *Aita, ta Semea eta Espiritu Santua iru Jaungoiko al dira?*

Aita, ta Semea eta Espiritu Santua ez dira iru Jaungoiko, **bakar bat** baizik.

4. *Nola deritza Jaungoikotasun bakar baten iru notin edo lagun banak izatea dan ezkutukia?*

Jaungoikotasun bakar baten iru notin edo lagun banak izatea dan ezkutukia, **Irutasun guztiz Donea** deritza.



*Jaungoiko Irazalea*

## 6<sup>n</sup> IKASGAIA

### **Egile alguztiduna**

1. *Zergatik deritzaio Egilea edo Irazalea Jaungoikoari?*

Egilea edo Irazalea deritzaio Jaungoikoari, dan guztia ezerezetik atera zualako.

2. *Zeintzuk dira Jaungoikoak egindako izakirik bikañenak?*

Jaungoikoak egindako izakirik bikañenak, Aingeruak eta gizonak dira.

3. *Zertarako egin zituan Jaungoikoak Aingeruak?*

Jaungoikoak egin zituan aingeruak, beti-beti bera onetsi ta goratu zezaten.

4. *Zertarako egin zuan Jaungoikoak gizona?*

Jaungoikoak gizona egin zuan, bizitza onetan bere aginduak beterik, gero, betikoan, bera ikusi ta maitatuaz, atsegiñetan bizitzeko.



*Gizakundea*

Bigarren Siniskaia: *Sinisten det bere Seme bakar Jesu-Kristo, gure Jauna.*

## 7<sup>n</sup> IKASGAIA

### Jesu = Kristo

1. *Irutasun guztiz Donearen iru lagunetatik, zein egin zan gizon?*

Irurasun guztiz Donearen iru lagunetatik: bigarrena, **Semea**, egin zan gizon.

2. *Nola egin zan gizon Jaungoikoaren Semea?*

Jaungoikoaren Semea gizon egin zan, gurea bezelako gorputza ta gurea bezelako anima artuaz.

3. *Zertarako gizon egin zan Jaungoikoaren Semea?*

Jaungoikoaren Semea gizon egin zan, gu erosi ta guri nola bizi erakustearan.

4. *Jaungoikoaren Seme gizon egiñak, nola du izena?*

Jaungoikoaren Seme gizon egiñak, **Jesu-Kristo** du izena.



*Jesu-Kristo'ren jaiotza*

Irugarfen Siniskaia: *Sinisten det Jesu-Kristo, Espiritu Santuaren bidez sortu ta Andre Maria Birjiñagandik jaio zala.*

## 8<sup>o</sup> IKASGAIA

### **Jesu-Kristo'ren jaiotza**

1. *Nun jaio zan Jesu-Kristo?*

Jesu-Kristo, Belengo estalpe tzar batean jaio zan.

2. *Norengandik jaio zan Jesu-Kristo?*

Jesu-Kristo, Andre Maria Birjiñagandik jaio zan.

3. *Zein izan zan Andre Maria Birjiñaren ezkontidea?*

Andre Maria Birjiñaren ezkontidea **Jose Deuna** izan zan.





*Jesus'en izkintz-aldia*

## 9<sup>o</sup> IKASGAIA

### Jesu-Kristo'ren bizitza

1. *Nun bizi izan zan Jesu-Kristo ogeitamar urte arte?*  
Ogeitamar urte arte, Jesu-Kristo, Nazaret'en, Andre Maria Birjiña ta Jose Deunaren etxean bizi izan zan.

2. *Zer egin zuan gero Jesu-Kristo'k bere azkeneko iru urtetan?*

Bere azkeneko iru urtetan, Jesu-Kristo, bere irakaski-zunak zabaltzen jardun zan.

3. *Jesu-Kristo'k bere jaungoikotasuna, nola egiztatzen zuan?*

Jesu-Kristo'k, bere jaungoikotasuna, alatz afigafi asko egiñaz egiztatzen zuan.

4. *Zer alatz egin zituan Jesu-Kristo'k?*

Jesu-Kristo'k ura ardo biurtu ta ogiak ugaritu egin zituan; elbafi asko sendatu ta ildako batzuek berpiztu ere bai.



*Jesus'en eriotza*

Laugarfen Siniskaia: *Sinisten det Jesu-Kristo, Pontzio Pilato'ren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, ıla ta obiratua izan zala.*

## 10<sup>n</sup> IKASGAIA

### Jesu-Kristo'ren Nekaldi ta Eriotza

1. *Nun ta noiz il zan Jesu-Kristo?*

Jesu-Kristo, Jerusalem'go Golgota-mendian, Ostiraldeun ařatzaldez il zan.

2. *Nola il zan Jesu-Kristo?*

Jesu-Kristo, nēke aundiak eraman ondoren, gurutze batean josirik il zan.

3. *Zergatik nai izan zuan Jesukristo'k Nekaldia igaro ta Gurutzean il?*

Jesu-Kristok, Nekaldia igaro ta Gurutzean il nai izan zuan, gure ogen-zofak ordaindu ta gu betiko eriotzatik ateratzeafen.



*Jesus'en berpiztea*

Bosgarfen Siniskaia: *Sinisten det Jesu-Kristo inpernuetara jetxi ta irugarfen egunean ilen artetik piztu zala.*

---

## 11<sup>o</sup> IKASGAIA

### **Jesu-Kristo'ren Inpernuetara Jeixtea, ta Berpiztea**

1. *Zein inpernuetara jetxi zan Jesu-Kristo eriotz ondorean?*

Jesu-Kristo, eriotz ondorean, zintzoen linbora jetxi zan, ez gaiztogalduen tokira.

2. *Zertara jetxi zan Jesu-Kristo linbora?*

Jesu-Kristo, linbora jetxi zan, bere etoferaren zai zeuden Guraso Doneen animak ateratzera.

3. *Nola berpiztu zan Jesu-Kristo irugarfen egunean?*

Jesu-Kristo, irugarfen egunean berpiztu zan, bere gorputz eta anima, beñiro ez iltzeko, alkarganatuaz.



*Jesus'en zeruetara igotzea*

Seigafen Siniskaia: *Sinisten det Jesu-Kristo zeruetara igo, ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldean eseririk dagola.*

## 12<sup>n</sup> IKASGAIA

### **Jesu-Kristo'ren zeruetara igotzea.**

1. *Nola igo zan Jesu-Kristo zeruetara?*

Jesu-Kristo, bere al utsez igo zan zeruetara, Apostolu ta Ikasle talde aundi baten aurrean.

2. *Jesu-Kristo gure Jauna zeruan beste inon ez aldago?*

Jesu-Kristo gure Jauna, Jaungoiko danez, toki guztietan dago; ta gizon danez, zeruan eta aldareko Sakramentu guztiz Donean.

3. *Zer esan nai du Aita Jaungoikoaren eskui-aldean eseririk egoteak?*

Aita Jaungoikoaren eskui-aldean eseririk egoteak, auxe esan nai du: Jesu-Kristo'k, Jaungoiko danez, Aitak ainbat aintza, ta gizon danez, beste inork baño geiago duala.



*Azken-auzia*

Zazpigarén Siniskaia: *Sinisten det Jesu-Kristo zerutik, biziak eta ilak epaitzera etoriko dala.*

## 13<sup>o</sup> IKASGAIA

### Jesu-Kristo'ren epaitzerako eto'era

1. *Noiz etoriko da Jesu-Kristo biziak eta ilak epaitzera?*

Jesu-Kristo, biziak eta ilak epaitzera, munduaren azkenean etoriko da.

2. *Nola du izena Jesu-Kristo'k munduaren azkenean egingo duan auzialdiak?*

Jesu-Kristo'k munduaren azkenean egingo duan auzialdiak, Azken-auzia du izena.



*Goteuna'ren etofera*

Zortzigarren Siniskaia: *Sinisten det Espiritu Santua.*

## 14<sup>n</sup> IKASGAIA

### Goteuna edo Espiritu Santua

#### 1. *Nor da Espiritu Santua?*

Espiritu Santua, Irutasun guztiz Donearen irugarren laguna da.

#### 2. *Noiz bidali zien Jesu-Kristo'k Espiritu Santua bere Apostoluai?*

Jesu-Kristo'k, bere Apostoluai, Pentekoste egunean, bera zeruetara igo ta amargaranean, bidali zien Espiritu Santua.

#### 3. *Aftu al degu guk ere Espiritu Santua?*

Bai; Espiritu Santua aftu gendun, batez ere, **Sendotza** deritzan Sakramentuan.



*Paulo Deuna Atenas'en*

**Bederatzigafen Siniskaia: *Sinisten det Eliza Santu, Katolikua; Santuen alkartasuna.***

## 15<sup>n</sup> IKASGAIA

### **Eliza ta Santuen alkartasuna.**

**1. Eliza zer da?**

Eliza, kristau sinistedunen batza da.

**2. Zein da Elizaren Burua?**

Elizaren Burua, zeruan, Jesu-Kristo gure Jauna da, ta lufean bere ordeko dan Eñomako Aita Santua.

**3. Nor da Aita Santua?**


Aita Santua, Kepa Deunaren oñordeko dan Eñomako Gotzai Nagusia da.

**4. Zer dira Gotzaiak?**

Gotzaiak, Apostolu Doneen oñordekoak dira.

**5. Zer esan nai du Santuen alkartasunak?**

Santuen alkartasunak, auxe esan nai du: Eliza deritzan Batz onen goi-ondasunak, bazkide guztien artean banatzen dirala.



*Jesus ogenak azkesteko eskubidea ematen*

**Amargaŕen Siniskaia: *Sinisten det pekatuen barkamena.***

## 16<sup>o</sup> IKASGAIA

### **Pekatuen barkamena.**

1. *Zer esan nai du pekatuen barkamenak?*

Pekatuen barkamenak auxe esan nai du: ogenak barkatzeko eskubidea Jesu-Kristo'k bere Elizari eman ziola.

2. *Zer ogen barkatu ditzazke Elizak?*

Elizak, ogen guztiak barkatu ditzazke, alik geien eta lañienak izan da ere.

3. *Ogenak, nola barkatzen dira Elizan?*

Elizan, ogenak, Bataioa ta Aitortzako sakramentuen bitartez, batez ere, barkatzen dira.





*Lazaro'ren berpiztea*

Amaikagafen Siniskaia: *Sinisten det aragiaren piztuera*

---

## 17<sup>n</sup> IKASGAIA

### Ílen berpiztea

1. *Zer esan nai du aragiaren piztuerak?*

Aragiaren piztuerak, auxe esan nai du: munduaren azken-aldian ildako guztiak len izan zituzten gorputz eta anima berakin berpiztuko dirala.

2. *Zergatik esaten da aragiaren piztuera?*

Aragiaren piztuera esaten da, gorputza baizik berpizten ez dalako.

3. *Nola deritza gizon guztiak berpiztuko diran eguna?*

Gizon guztiak berpiztuko diran eguna, Berpizkunde orokar eguna deritza.



*Jesus Epalea*

Amabigafen Siniskaia: *Sinisten det betiko bizitza.*

## 18' <sup>n</sup> IKASGAIA

### Betiko bizitza.

#### 1. - *Zer esan nai du betiko bizitzak?*

Betiko bizitzak, auxe esan nai du: emengo bizitza onen ondorean, bein ere bukatuko ez dan beste bizitza bat izango degula.

#### 2. *Nolakoa da betiko bizitza?*

Betiko bizitza, onentzat zorionekoa izango da zeruan, eta gaiztoentzat zorigaitzokoa inpernuan.

#### 3. *Zein joango dira zerura?*

Zerura joango dira, Jaungoikoa maitatu ta otseindu dutenak, ta bere adizkidetasunean iltzen diranak.

#### 4. *Zein joango dira inpernura?*

Inpernura joango dira, Jaungoikoa maitatu ta otseindu ez dutenak, ta ogen astunean iltzen diranak.



*Makabeo'tar anaien Ama*

## 23<sup>o</sup> IKASGAIA.

### Zerua edo Donokia

1. *Zerua zer da?*

Zerua, zoriondunak bizi diran tokia da.

2. *Zertan dago zeruko zoriona?*

Zeruko zoriona, Jaungoikoa ikusi ta maitatuaz, beti-betiko atsegiñetan, batere gaitzik gabe, bizitzean dago.

3. *Nortzuk joaten dira zerura?*

Zerura joaten dira, Jaungoikoaren adizkidetasunean iltzen diranak.



*Otoi-eredua*

## 2. OTOITZAK

---

### 24<sup>n</sup> IKASGAIA

#### **Aita gurea**

##### *1. Ea esazu Aitagurea.*

Aita gurea...

##### *2. Aitagurea nork esan zuan?*

Aitagurea, Jesu-Kristo'k esan zuan.

##### *3. Zertarako esan zuan Jesu-Kristo'k Aitagurea?*

Jesu-Kristo'k Aitagurea esan zuan, otoitz-egiten guri erakusteko.

#### **Otoitz egitea, zer da?**

Otoitz egitea, Jangoikoagana biotza jaso ta mesedeak eskatzea da.




(Lekuona-arg.)

*Arantzatzu'ko Ama Birjiña*

## 25<sup>n</sup> IKASGAIA

### **Agur Maria ta Salbea**

1. *Zein otoitz esaten dizkiogu Andre Maria'ri?*  
Andre Maria'ri, "Agur Maria" ta "Salve" a,  
batez ere, esaten dizkiogu.
2. *Ea esazu Agur Maria.*  
Agur Maria...
3. *Ea esazu "Salve" a.*  
Agur Eregiña...
4. *"Agur Maria" ta "Salve" a, zertarako esaten ditugu?*  
"Agur Maria" ta "Salve" a, esaten ditugu, Andre Maria Ama Birjiñari laguntza eskatzeko



*Parisaitafa ta zergaria*

## 26<sup>n</sup> IKASGAIA

### Beste otoitzak

1. *Aingeruai ta zeruko Doneai ere otoitz egin bear al zaie?*

Bai; Aingeruai ta zeruko Doneai ere otoitz egin bear zaie, gure bitartekoak dira-ta.

2. *Zein aingeruri, batez ere, izan bear diogu berarizko eraspena?*

Berarizko eraspena, bakoitzak bere Aingeru Zaitzaleari izan bear dio, ta egunero laguntza eskatu.

3. *Zergatik bukatzen ditugu gure otoitzak Gloria esanaz?*

Gure otoitzak Gloria esanaz bukatzen ditugu, Irutasun guztiz Donea goratzeko.

4. *Ea esazu Gloria.*

Gloria Patri...

*Euskeraz: Ajntza Aitari...*



*Amar aginduak.*

### 3. AGINDUAK

#### 27<sup>n</sup> IKASGAIA

#### **Jaungoikoaren aginduak**

1. *Zein dira Jaungoikoaren Legeko aginduak?*

Jaungoikoaren Legeko aginduak amar oek dira...

2. *Jaungoikoaren Legeko agindu guztiak betetzeko bearturik al gaude?*

Bai; Jaungoikoaren Legeko agindu guztiak betetzeko bearturik gaude, ta ez betetzea ogen edo pekatu da.

3. *Bete al ditzakegu Agindu oiek guztiak?*

Bai; bete ditzakegu Agindu oiek guztiak Jaungoikoaren laguntzaz; au bear bezela eskatzen dionari ez baidio ukatzen.



*Kepa Deuna Jesus'ek Elizburu jafita*

## 28<sup>n</sup> IKASGAIA

### Elizaren aginduak

1. *Ea esaitzu Ama Eliza Donearen agin-  
duak.*

Ama Eliza Donearen aginduak bost dira...

2. *Nundik du Elizak bere aginduak jafi ta aldatzeko eskubidea?*

Elizak bere aginduak jafi ta aldatzeko eskubidea, Jesu-  
Kristo beragandik du.

3. *Zertarako dira Ama Eliza Donearen aginduak?*  
Ama Eliza Donearen aginduak, Jaungoikoaren Lege-  
koak obeto betetzeko dira.





*Ogi ugaritzea*

## 4. SAKRAMENTUAK

### 29<sup>n</sup> IKASGAIA

#### **Ikurton edo Sakramentuak**

1. *Zenbat dira Ama Eliza Donearen Sakramentuak?*

Ama Eliza Donearen Sakramentuak zazpi dira...

2. *Sakramentuak zer dira?*

Sakramentuak, Jesu-Kristo gure Jaunak bere grazia ta onoimenak emateko jañi zituan ezaugafi ageriak dira.



*Gonzaga'tar Luis Deunaren jaunartzea*

## AITORTU TA JAUNARTZEKO GERTAPENA

30<sup>n</sup> IKASGAIA

### Aitortza

1. *Zertarako da Aitortza deritzan Sakramēntua?*

Aitortza deritzan Sakramentua, bataiatu ezkeroko egindako pekatuak barkatzeko da.

2. *Noiz artzen degu Aitortza deritzan Sakramentua?*

Aitortza deritzan Sakramentua, pekatuak ondo aitortu ta azkespena ematen zaigunean artzen degu.

3. *Aitortza ondo egiteko zenbat gauza bear dira?*

Aitortza ondo egiteko bost gauza bear dira: Azterketa, biotz-damua, ontzeko asmoa, aozko aitorketa ta gaizki egiñen ordaña.



*Seme ondatzalea*

## 31.<sup>n</sup> IKASGAIA

### Azterketa

#### 1. Azterketa zer da?

Azterketa, ogenak gogora ekartzen alegintzea da.

#### 2. Zer eskatu bear diogu Jaungoikoari azterketa egin aurretik?

Azterketa egin aurretik, gure ogenak ondo ezagutu ta egiz gofotatzeko laguntza eskatu bear diogu Jaungoikoari.

#### 3. Azterketa nola egiten da?

Azterketa, Jaungoikoaren eta Elizaren aginduak gogora ekañiaz egiten da.

#### 4. Nolatan ogenak gogoratuko zaizkigu ezezago?

Ogenak ezezago gogoratuko zaizkigu, ibili geran tokiak eta izan ditugun eginkizunak begiratuaz.



*Kepa Deunaren samintasuna*

## 32<sup>n</sup> IGASKAIA

### **Garbai edo damua, ta asmoa**

#### **1. Damua zer da?**

Damua, egindako ogenen gofotoa ta geiago ez egiteko asmoa aferazten digun biotz-samintasuna da.

#### **2. Zergatik gure ogenen garbai izan bear degu?**


Gure ogenen garbai izan bear degu, Jaungoikoa nairgabetu degulako.

#### **3. Ea esazu damu-egintza.**

Jesu-Kristo nere Jaun...

#### **4. Asmoa zer da?**

Asmoa, ogenik geiago beñere ez egin eta ogenerako bideetatik aldentzeko erabaki sendoa da.



Aitorketa

### 33<sup>n</sup> IKASGAIA

## Aitorketa ta Ogen=ordaña

#### 1. Zer da aitorketa?

Aitorketa, ogenak apaizari esatea da.

#### 2. Zer ogen aitortu bear dira?

Aitortu bear dira, azterketa afitaz egin ondorean gogoratzen zaizkigun ogen astun guziak.

#### 3. Ogen ariñak aitortzera beartuak al gaude?

Ez gaude ogen ariñak aitortzera beartuak; ona da alaz ere aitortzea.

#### 4. Nola aitortu bear dira ogenak?

Ogenak aitortu bear dira, gezuñik eta naste gabe, ta norberak dakizkian bezela.

#### 5. Zer da ordaña?

Ordaña, apaizak ezartzen digun ogen-neke edo penitentzia da.



*Azken Aparia*

## 34<sup>n</sup> IKASGAIA

### «Eukaristia»: Jaunartzea

1. *Zertarako jafia da Eukaristia deritzan Sakramentua?*

Eukaristia deritzan Sakramentua, bear beze-la afituta gure animen janari ta Jaungoikoaren graziaren geigafi izan dakigun jafia da.

2. *Zer artzen degu Eukaristia deritzan Sakramentuan?*

Eukaristia deritzan Sakramentuan, Jesu-Kristo, Jaungoiko ta gizon egizkoa artzen degu.

3. *Zer irudipean dago Jesu-Kristo Aldareko Sakramentu guztiz Donean?*

Aldareko Sakramentu guztiz Donean, Jesu-Kristo ogi-ardoren irudipean dago.



*Jesüs Bidalien oñak garbitzen*

### 35<sup>n</sup> IKASGAIA

#### **Jaunartzeko animaren gertuera**

*1. Nola egon bear du animak ondo jaunartzeko?*


Ondo jaunartzeko, animak Jaungoikoaren adizkidetasunean egon bear du.

*2. Zer da Jaungoikoaren adizkidetasunean egotea?*

Jaungoikoaren adizkidetasunean egotea, anima ogen astunik gabe eukitzea da.

*3. Eta ogen astunean dagoanak ondo jaunartzeko, zer egin bear du?*

Ogen astunean dagoanak, ondo jaunartzeko, aitorketa on bat egin bear du.



*Lenbiziko Jaunartze ospatsua*

## 36<sup>n</sup> IKASGAIA

### **Jaunartzeko gorputzaren gertuera**

1. *Ondo jaunartzeko nola egon bear du gorputzak?*

Ondo jaunartzeko, gorputzak baraurik egon bear du.

2. *Nola baraurik egon bear da jaunartzeko?*

Jaunartzeko, gaberditik ezertxo ere jan eta edan gabe egon bear da; bestela ogen astuna egingo litzake.

3. *Noizbait jaunartu al diteke baraurik egon ezañen?*

Bai; baraurik egon ezañen jaunartu diteke, Elizakoak egitean.





*Tartsixi Deunaren ziñopa*

## 37' <sup>n</sup> IKASGAIA


### **Jaunartzea egiteko agindua**

1. *Nortzuk daude jaunartzea egitera beartuak?*  
Jaunartzea egitera beartuak daude, ezaguera duten kristau guztiak, zazpi urte betezkero.

2. *Noiz gaude jaunartzera beartuak?*  
Jaunartzera beartuak gaude, urtean bein gutxienez, Paskaldian, eta eriotzaldian.

3. *On al da maiz jaunartzea?*  
Bai; oso on da maiz, ta al baldin bada egunero jaunartzea.

4. *Zer bear da maiz ta egunero jaunartzeko?*  
Maiz eta egunero jaunartzeko bi gauza bear dira: Jaungoikoaren grazian egon eta asmo zuzenez jaunartu.



*Aguñtu ta onesten zaitugu Kristo gure  
Jaun ori, zeure gurutzearen bidez  
gizadia biñerosi zendualako*

# Aitorpena egiteko erabide laburra

---

## Otoi-egintzak

### *Azterketa aurrean.*

Atoz Goteun ori! Argitu zaidazu adimena nere ogenak ezagutzeko, ikutu nere biotza oiek gofotatu ta apalki aitortzeko, ta indartu nere naimena ontzeko asmo sendoa artu dezadan.

### *Damu-egintza.*

Jesu-Kristo nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egizkoa, nere Egile ta Salbatzaile ori, zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua.

Asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guztiak utzi, aitortu ta ogen-nekea betetzeko. Alaxe.

### *Aitorpena asteko.*

Aitaren...

Agur Maria!

Nik, ogendi onek <sup>(1)</sup> aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, Maria beti-Birjin zoriontsuari, Done guztiai, eta zuri, ene Aita oñi, ogen egin dedala.

### *Aitortu ondorean.*

Pekatu oiek guztiak aitortzen ditut, baita gogoratu etzaizkidan beste guztiak ere; Jaungoikoari oien barkapena eskatzen diot, eta zuri, ene Aita, ogen-nekea ta azkespena.

---

(1) X Pio Aita Santuaren kristau-ikastiak dakarren bezela.

# Jaunartzea egiteko erabide laburra

---

## JAUNARTU AUÑEAN

### *Sinispén-egintza. (1)*

Nere Jaun eta Jaungoiko guztiz Egizalea zerana! Sinisten det orain artzera nuan Osti ofetan zure Gorputz, Odo-la, Gogo (anima) ta Jaungoikotasun ber-bera ematen dizkidazula. Sinisten det, Zerorek ala esan zenuelako, ta ori egiztatzearen, mila ta milaka aldiz nere bizia emango nuke.

### *Itxaropen-egintza.*

Jaungoiko zintzoa: Zuk esan zenuen Zugan itxaropena jartzen duenik ez dala galduko. Zure agindu zintzoan, bada, nere uste osoa daukat, orain luñean artzen bazaitut, gero zeruan Zurekin bat egiteko zoriona emango didazula.

### *Maitasun-egintza.*

Jesus maitagafia: nigatik gurutzean bizia emateaz gafiñera, zure Aragi garbiarekin ni indartzera zatozkit. Maitezaitut biotz, gogo ta indar guziaz. Eskatzen dizut zure maitetasunean bizi ta iltzeko zoriona.

### *Damu-egintza.*

Ene Jaun aundia: zure aunditasunaren aũean nere ezereztasuna ezaguturik, biotzez damutuaz auzpezten naiz. Nola auferatu ninteke Zu artzera, ainbestetan eta ain gogorki naigabetu bazaitut? Ez, ez naiz ontasun aundi ofen jabe egiteko ainbat diña; baña ala nai dezun ezkeroz, egin bedi Zuk nai dezun bezela.

---

(1) "Argi Done Laburra"tik artua.

## Eliz-otoitzak

*Batek.*—Jaungoiko ona, entzun itzatzu gure otoitzak eta Go-teun argiz bete iguzu biotza,

*Guztiak.*—Zure Sakramentua bear bezela artzeko adiña izan gaitezen eta zu beti-bèti maite zaitzagun.

*Batek.*—Atoz gugana Jaun-ori, ta gure bařena garbi iguzu.

*Guztiak.*—Zure Seme Jesu-Kristo datorkigunean, gure animetan egotoki edeř-eder bat arkitu dezan.

### *Aitorpen orokarřa.*

Nik, pekatari onek, aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Pablo Apostolu Doneai, beste Done guztiai, baita zuri, ene Aita oři, ere, pekaturik asko egin dedala, gogapen, itz eta egi-teetan, nere eřuz, nere eřuz, nere eřu aundiz. Ořegatik eskatzen diot Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiai, baita zuri, ene Aita oři, ere, otoitz egiozutela nere aldez Jaungoiko gure Jaunari.

### *Apaizak Osti Donea erakustean.*

*Batek.*—Jauna, ez naiz zu nere etxean sartzeko adiña,

*Guztiak.*—Baña itz bakar bat esazu ta nere anima sendatuko da. (*Iru aldiz*).

### *Jaunartze bitartean.*

*Batek.*—Jesu-Kristo gure Jaunaren gorputzak, betiko bizitzarako nere anima gorde dezala. Alaxe. (*Asko aldiz*).

## JAUNARTU ONDOREAN

### *Jauna gurtzeko.*

Jesus nere zoriona: Afitu ta zoraturik nago nigana etortzearekin egin didazun mesedeaz, eta itzuli dizkidazun ondasunaz. Zeruko aingeru ta santuekin batean, zure afean auzpezturik, zure maitetasun eta erukia aintzatu, gurtu ta goratu nai ditut.

### *Eskeñak emateko.*

Jaungoiko Ona: Nere ezerestasuna begiratu dezu. Gaxo nengoen eta Zuk indartu nazu; beartsu arkitzen nintzan eta zure ondasunez bete nazu. ¿Zer emango dizut, ene Jaungoikoa, zure eskuetatik aitu ditudan ondasunen ordañez?

### *Norbera eskeintzeko.*

Nere Jaun eta Jabea: naizen eta daukadan guzi-guzia damatzut, Zerofek guzi-guzia lenagotik eman didazu-ta.

Nere biotza nai dezu... aitu betiko Jauna.

Nere adimen, oroimen, gorputz eta anima, orobat zureak dituzu.

Zure maitetasuna naikoa det, ta ainbestekin txit aberatsa naiz.

### *Esker mesede berriak eskatzeko.*

Baño ¿zer nezake, Jauna, zure indar ta zure laguntzarik gabe?

¡Ene Jaun Maitea! Zure Gorputz-Odol agurgariak jan-edaritzat artu ditudan ezkeroz, ahen eskatzen dizut, Andre Maria zure Ama bitarteko jafirik, itzuli dizazkida-zula nere biotzean argitasuna, indaia, pekatuarenganako beldua ta etsaiaren ekiñaldi guztiak autsirik, Zurekin bat beti izatea.

Jesus, nere gurasoengatik ere eskatzen dizut; lagundu zaiezu, beren lanak onetsi itzatzu. Batez ere, Jauna, gero an zeruan guztiok, beti-betiko elkaturik egon gaitezen; emen lufean kristau on eta zintzoak izateko laguntza emaezu.

*Loyola'tar Iñaki Deunak esan oi zuen Otoitza.*

*Batek:* Kristoren anima,

- › Kristoren gorputza,
- › Kristoren saietseko ura,
- › Kristoren nekaldia,
- › O Jesus ona,
- › Zure zaurien bañuan,
- › Zugandik alde egiten,
- › Etsai gaiztoengandik,
- › Eriotz-aldian,
- › Eta Zugana joatea,
- › Zure santuekin batean,

*Guztiak:* Santutu nazazu.

- › salbatu nazazu.
- › garbitu nazazu.
- › indartu nazazu.
- › entzun zaidazu.
- › gorde nazazu.
- › z neri utzi.
- › gorde nazazu.
- › deitu nazazu.
- › agindu zaidazu.
- › Betikotasun osoan  
Zu goratzeko, Alaxe.

### Jesus Gurutziltzatuari

(Bere irudi aurrean esan bear da)

O Jesus on eta guztiz gozoa! Auzpez belaunikaturik naukazu emen zure aurrean; eta nere animaren berotasunik aundienaz, bein eta beñiz eskatzen dizut, piztu zazula nere biotzean sinismen, itxaropen eta maitetasun bizi-bizia, nere pekatuen damu egiazkoa, ta aurreakoan besterik ez egiteko erabaki sendoa, nere biotzeko samintasun eta eruki aundienaz, Zure bost zauriak gogoratzen ditudan artean, begien aurrean eukirik, o Jesus ona, Dabid igarleak Zugatik aurretik igafia: «Zulatu dituzte nere esku-oñak, zenbatu litezke nere ezur guztiak.»

(Barkapen osoa Jaunartuta, Aita Santuaren alde zerbait otoi egiñik.)

## Andre Mariari

Itzuli nigana zure begiak, Maria Birjin txit goragafia. Zure begien atsegin poza orain egiñik nago-ta. Eskatu nere alde zure Seme maite-maiteari, bere Gorputz-Odol gozoa, jan-edariz eman dit-eta; zure irabaziak eskeñi nere beartasun aundiaren orde. Eskeñak eman nere izenean, eta eskatu: ez dedila nere biotz-bařendik joan, nere gorputz-anima bere esker mesedez bete-betea lendaufetik utzi gabe. Alaxe.

### Amaitzeko Eliz-otoitzak

*Batek.*—O Jesu-Kristo bera artzen dan, bazkari donea! Zure bidez beritzen da bere Nekaldiaren oroipena, baita geure adimena zeru-argiz bete ta betiko zorionaren ezaupidea eman ere.

Zeruko ogia eman diguzu Jauna.

*Guztiak.*—Atsegin guziak berekin dauzkan ogia.

*Batek.*—Otoitza. Zeure Nekaldiaren oroipena Sakramentu afigařian utzi diguzun Jaungoiko ori,

*Guztiak.*—Iguzu, afen, zure Gorputz-Odola gurtzeko laguntza, Erospeneko irabaziak etengabe nabaitu ditzagun.

Beti-beti bizi ta agintzen dezun Jaun ořek. Alaxe.

### Iru auřen ereserkia

*Batek.*—Suzko labean iru gaztek Goiko Jauna onesten zuten eran, esan dezagun:

1. Jaunaren egiñak,	<i>Guztiak:</i> Onetsi Jauna.
2. Jaunaren aingeruak,	» » »
3. Ortz-unean esekitako odeiak,	» » »
4. Eguzki ta ilargia,	» » »
5. Zeruko izařak,	» » »
6. Euri ta intzak,	» » »
7. Goiko Jaunak azkatutako aizeak,	» » »
8. Su ta beroak,	» » »



9. Otz eta izotzak,	<i>Guztiak: Onetsi Jauna.</i>		
10. Basur eta lantzurdak,	»	»	»
11. Gau ta egunak,	»	»	»
12. Argi ta ilunak,	»	»	»
13. Tximist ta lañoak,	»	»	»
14. Mendi ta muñoak,	»	»	»
15. Ludia orlegitzen dezuten landareak,	»	»	»
16. Itxaso ta ibaiak,	»	»	»
17. Uretan bizi zeraten araiak,	»	»	»
18. Eguratseko egaztiak,	»	»	»
19. Pizti ta abereak,	»	»	»
20. Israëlgo erriak,	»	»	»
21. Jaunaren apaizak,	»	»	»
22. Jaunaren mirabeak,	»	»	»

*Batek.*—Onetsi dezagun Aita, ta Semea eta Goteuna.

*Guztiak.*—Aintzatu ta goratu dezagun beti-beti.

*Batek.*—Otoitza. Iru gazteai sugarak indargetu ziñizkietzun Jaungoiko on ori,

*Guztiak.*—Iguzu oitura txaren sugaretan ez eretzeko bear degun goi-laguntza.

*Batek.*—Zure maitaleentzat goiondasun ugariak gerturik dauzkatzun Jaun ori.

*Guztiak.*—Irazeki itzazu, aŕen, gure biotzak zuganako maitagarrez, gauza guztietan eta berak baño geiago zu maitatuaz iritxi ditzagun guk opa al genezakegun baño obeago diran zure abinduak. Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez eskatzen dizugu. Alaxe.





## Kristau-ikasketa aurean esan leiken

### OTOITZA

*Batek.*—Ene Goiko Jaun ori, zuganako maitasunez entzutera goaz adi-adi kristau-ikastiaren azalpena; iguzu, aŕen, bere bidez zu ezagutu, maitatu, jaurestu eta ikasten degun guzia zintzo betetzeko goi-laguntza.

*Guztiak.*—Gure lan guziak zuganako maitasunez egi-ten jaŕaituko degu.

Aitaren...

## Kristau-ikasketa ondorean

*Batek.*—Goiko Jaunaren Ama Donea, zure babesera gatozkigu; ez, aŕen, entzungor egin gure beaŕ-aldietan zuzentzen dizkitzugun eskariai.

*Guztiak.*—Ta galbide guztietatik aldendu gaitzatzu, Birjin zoriontsu ta onetsi ori.

Aitaren...



SANEURÍA

Bi eñial

SALGAI

Edozein idaztegietan.  
Askoka, egileak saltzen du.

OARA

Kristau ikasti onen Azalpena irakaslarientzat,  
laister argitaratuko da.